

BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN ETA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA, ARRETA SOZIOSANITARIORAKO-

CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA Y LA ADMINISTRACIÓN GENERAL DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DEL PAÍS VASCO PARA LA ATENCIÓN SOCIO SANITARIA

Bilbon,

En Bilbao a

### BILDU DIRA

### SE REÚNEN

Alde batetik, Elixabete Etxanobe Landajuela, Bizkaiko Diputatu Nagusia, Bizkaiko Foru Aldundiaren izenean eta ordezkartzan, Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 23.1 artikuluan xedatutakoaren arabera.

De una parte, la Sra. Dña. Elixabete Etxanobe Landajuela, Diputada General de Bizkaia, en nombre y representación de la Diputación Foral de Bizkaia, en virtud de lo dispuesto en el artículo 23.1 de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia.

Eta bestetik, Alberto Martinez Ruiz jauna, Eusko Jaurlaritzako Osasuneko sailburua. Martinez jaunak egintza honetarako eskumena du, Gobernu Kontseiluaren 2025eko (e)ko erabakia dela bide.

Y de otra, el Sr. Don Alberto Martinez Ruiz, Consejero de Salud del Gobierno Vasco, facultado para este acto por Acuerdo de Consejo de Gobierno de de del 2025.

Alderdiek beharrezko gaitasun juridikoa aintzatesten dute hitzarmen hau sinatzeko, eta hori dela bide,

Las partes se reconocen la capacidad jurídica necesaria para suscribir el presente Convenio y en su virtud

### ADIERAZI DUTE

### MANIFIESTAN

**Lehena.** – Gizarte Zerbitzuen abenduaren 5eko 12/2008 Legeak, 46.1. artikuluan, honela definitzen du arreta soziosanitarioa: osasun-arazo larriak direla-eta, edo eginkizunen arloko mugak direla-eta, eta/edo gizartetik bazterturik geratzeko arriskua dela-eta, pertsona batzuek behar dituzten zainketek osatzen dute arreta soziosanitarioa, osasun-arreta eta gizarte-arreta aldi berean biltzen dituen, koordinatua eta egonkorra, arreta jarraituaren printzipioarekin bat datorrena.

**Primero.** – La Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales define en su artículo 46.1 la atención socio sanitaria como el conjunto de cuidados destinados a las personas que, por causa de graves problemas de salud o limitaciones funcionales y/o de riesgo de exclusión social, necesitan una atención sanitaria y social simultánea, coordinada y estable, ajustada al principio de continuidad de la atención.



**Bigarrena.** – Autonomia Erkidegoko Erakunde Erkideen eta bertako Lurralde Historikoetako Foru Organoen arteko harremani buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 6. eta 7. artikuluek hauxe ezartzen dute: lehenengoei osasun-laguntzarekin zerikusia duten gaien eskumen eskusiboa dagokie; bigarrenei, beren lurraldearen barruan, gizarte-laguntzaren arloko erakunde erkideen legedia gauzatzea.

Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren 8/1997 Legeak ezarritakoaren arabera, EAEko osasun administrazioari dagokio osasun publikoa oro har babestea, prebentzio-neurrien bidez, osasuna sustatzea, banakako osasun-prestazioak ematea eta prestazio horiek emateko baliabide egokiak bermatzea.

Bestalde, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen arabera, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretu bidez garatutakoa, foru-aldundiei dagokie bigarren mailako arretako gizarte-zerbitzuak ematea. Zerbitzu horiek bazterkeria, mendekotasun eta babesgabetasun egoeren ondoriozko gizarte-premiak asetzen dituzte.

**Hirugarrena.**– Arreta soziosanitarioari dagokionez, 12/2008 Legearen 56.3. artikulua, finantza-lankidetzako formulen artean, arreta soziosanitarioko finantzazioa xede horretarako erabakitzen dituzten hitzarmenen bidez egin daitekeela ezartzen du, administrazio publikoak elkarrekin arituz

Halaber, 56. artikuluko 5. atalean ezartzen da EAEko administrazio publikoek euren artean eta beste erakunde publikoekin izandako lankidetzak beste beste lankidetzak hitzarmenen bidez gauzatuko dela.

**Segundo.** – Los artículos 6 y 7 de la Ley 27/1983, de 25 de noviembre, de Relaciones entre Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos, establecen que a las primeras corresponde la competencia exclusiva en materias relacionadas con la asistencia sanitaria y a los segundos, dentro de su territorio, la ejecución de la legislación de las Instituciones Comunes en materia de Asistencia Social.

En virtud de lo dispuesto por la Ley 8/1997, de Ordenación Sanitaria de Euskadi compete a la Administración Sanitaria Vasca garantizar la tutela general de la salud pública a través de medidas preventivas, de promoción de la salud y de prestaciones sanitarias individuales, así como garantizar un dispositivo adecuado de medios para la provisión de dichas prestaciones.

Por su parte, de acuerdo con la Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales, desarrollada por el Decreto 185/2015, de 6 de octubre, de Cartera de Prestaciones y Servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales, compete a las Diputaciones Forales la provisión de los servicios sociales de atención secundaria que dan cobertura a las necesidades sociales derivadas de las situaciones de exclusión, dependencia o desprotección.

**Tercero.**– En lo que respecta a la atención socio-sanitaria, el artículo 56.3 de la Ley 12/2008 establece, entre las fórmulas de colaboración financiera, que la financiación de la atención socio-sanitaria podrá realizarse conjuntamente entre las administraciones públicas concernidas mediante los convenios que acuerden a tal fin.

Asimismo, en el apartado 5 del artículo 56 se prevé que la colaboración de las administraciones públicas vascas entre sí y con otras entidades públicas se instrumentará,



entre otras fórmulas, a través de convenios de colaboración.

**Laugarrena.** – Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legea argitaratzeak eta EAeko Arreta Soziosanitarioaren Gidalerroak egiteko Esparru Dokumentua (2011) onartzeak definitzen dute EAEn arreta soziosanitarioa emateko jarduera-esparrua. Ondoren, Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseiluak berretsitako dokumentu estrategikoetan garatu da esparru hori: Euskadiko Arreta Soziosanitarioaren Ildo Estrategikoak 2013-2016, Euskadiko Arreta Soziosanitarioaren Lehentasun Estrategikoak 2017-2020 eta, estrategia berriena, Euskadiko Arreta Soziosanitarioko Estrategia 2021-2024.

**Cuarto.**– La publicación de la Ley 12/2008 de Servicios Sociales y la aprobación del Documento Marco para elaborar las Directrices de la Atención Sociosanitaria en la CAPV (2011) definen el marco de actuación para la atención sociosanitaria en Euskadi que ha tenido desarrollo posterior en los diferentes documentos estratégicos ratificados por el Consejo Vasco de Atención Sociosanitaria: Líneas estratégicas para la Atención sociosanitaria en Euskadi 2013-2016, Prioridades Estratégicas de Atención Sociosanitaria, Euskadi 2017-2020 y la más reciente Estrategia de Atención Sociosanitaria de Euskadi, 2020-2024.

**Bosgarrena.**– Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legearen 46.1 atalean berariaz jasotzen denez, arreta soziosanitarioak honako hauek hartuko ditu: osasun-arazo larriak direla-eta, edo eginkizunen arloko mugak direla-eta, eta/edo gizartetik bazterturik geratzeko arriskua dela-eta, pertsona batzuek behar dituzten zainketak hartzen ditu arreta soziosanitarioak, osasun-arreta eta gizarte-arreta aldi berean biltzen dituen, koordinatu eta egonkorra, arreta jarraituaren printzipioarekin bat datorrena.

**Quinto.**– El apartado 46.1 de la Ley 12/2008 de Servicios Sociales recoge expresamente que la atención sociosanitaria comprenderá el conjunto de cuidados destinados a personas que por causa de graves problemas de salud o limitaciones funcionales y/o de riesgo de exclusión social, necesitan una atención sanitaria y social simultánea, coordinada y estable, ajustada al principio de la continuidad de la atención.

Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legearen 46.2 atalean arreta soziosanitarioaren esparruan arreta berezia jaso dezaketen kolektiboak sartzen dira, besteak beste:

En el apartado 46.2 de la Ley 12/2008, de Servicios Sociales, se incluyen los colectivos particularmente susceptibles de ser atendidos en el marco de la atención sociosanitaria, entre los que se encuentran:

- Mendetasun-egoeran dauden adinekoak eta desgaitasuna duten pertsonak.
- Osasun mentaleko arazoak dituzten pertsonak, bereziki gaixotasun mental larria eta kronifikatua dutenak eta droga-mendetasuneko arazoak dituztenak.

- Personas mayores en situación de dependencia y personas con discapacidad.
- Personas con problemas de salud mental, en particular enfermedad mental grave y crónica y personas con problemas de drogodependencia.



- Gaixotasun somatiko kronikoak eta/edo baliogabetzaileak dituzten pertsonak.
- Ospitalean alta eman arren, oraindik autozainketarako autonomia nahikorik ez duten gaixotasunen bat duten pertsonak eta gaixotasun terminalak dituzten pertsonak.
- Bazterkeria-arriskuan dauden beste kolektibo batzuetako pertsonak, bereziki babesgabetasun-egoeran edo -arriskuan dauden edo portaera-arazoak dituzten adingabeak, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak edo osasun- eta gizarte-laguntza behar duten etorkinak.
- Personas con enfermedades somáticas crónicas y/o invalidantes.
- Personas convalecientes de enfermedades que, aun habiendo sido dadas de alta hospitalaria, todavía no disponen de autonomía suficiente para el autocuidado y personas con enfermedades terminales.
- Personas pertenecientes a otros colectivos en riesgo de exclusión, en particular las personas menores de edad en situación o riesgo de desprotección o con problemas de comportamiento, las mujeres víctimas de violencia de género, o la población inmigrante con necesidad de atención sanitaria y social.

Horrenbestez, arestian zehaztutakoarekin bat, bi alderdiek hitzarmen hau sinatzea erabaki dute, eta hitzarmenak honako xedapenak izango ditu.

Por consiguiente, de conformidad con lo anteriormente expuesto, las partes acuerdan suscribir el presente convenio, el cual se registrá por las siguientes

## XEDAPENAK

### Lehen.- Hitzarmenaren xedea

Hitzarmen honen xedea da osasun-prestazioa duten gizarte-zerbitzuak garatzeko lankidetzaz, Gizarte Zerbitzuen Sistemako baliabide hauetan:

- Egoitza-unitate soziosanitarioak (aurrerantzean, EUS), hitzarmen honen I. eranskinean jasotako zehaztapenen arabera.
- Egoitza-unitateak, laguntzak dituzten etxebizitzak eta eguneko zentroak, gaixotasun mental larria eta kronifikatua duten pertsonentzat, hitzarmen honen I. eranskinean ezarritako zehaztapenekin bat.
- Adineko mendekoentzako eta desgaituentzako egoitzak.

## ESTIPULACIONES

### Primera.- Objeto del Convenio.

El presente Convenio tiene por objeto la colaboración para el desarrollo de los servicios sociales con prestación sanitaria en los siguientes recursos del Sistema de Servicios Sociales:

- Unidades residenciales sociosanitarias (en adelante URSS), conforme a las especificaciones contenidas en el Anexo I al presente convenio.
- Unidades residenciales, viviendas con apoyos y centros de día para personas con enfermedad mental grave y crónica, conforme a las especificaciones contenidas en el Anexo I al presente convenio.
- Residencias para personas mayores dependientes y personas con discapacidad.



### Bigarrena. – Betekizunak, sarbidea eta alta.

Hitzarmen honetan jasotako zerbitzuen onuradunak, bertan jasotako unitateetan sartzeko eta alta emateko irizpideak eta prozedurak Bizkaiko Foru Aldundiaren araudian aurreikusitakora egokituko dira, hau da, Bizkaiko Lurralde Historikoan baliabide horiek eskuratu eta erabiltzeko sistema arautzen duenean aurreikusitakora.

Gainera, hitzarmen honen laugarren xedapenean definitutako Balorazio eta Orientazio Soziosanitarioko Batzorde Teknikoak aldeko irizpena eman beharko du honako baliabide hauetako bakoitzerako:

- Egoitza-unitate soziosanitarioak (aurrerantzean, EUS).
- Egoitza-unitateak, laguntzak dituzten etxebizitzak eta eguneko zentroak, gaixotasun mental larria eta kronifikatua duten pertsonentzat.

Irizpen hori ez da beharrezkoa izango Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 31ko 24/2020 Foru Dekretuaren xedapen gehigarri bakarrean aurreikusitakoa aplikatzen zaien zentroetan (24/2020 Foru Dekretua, Gaixotasun mentala duten pertsonentzako egoitza-zentro eta eguneko zentroetarako sarbidea arautzen duena).

### Hirugarrena. – Alderdien betebeharrak

a) Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren betebeharrak eta erantzukizunak.

1.- Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari dagokio bosgarren klausulan ezarritako kopurua ordaintzeko betebeharra, han adierazitako moduan.

### Segunda. – Requisitos, acceso y alta.

Las personas destinatarias de los servicios, los criterios y procedimientos de acceso y alta en las unidades incluidas en el presente Convenio se ajustarán a lo previsto en la normativa de la Diputación Foral de Bizkaia reguladora del sistema de acceso y empleo de dichos recursos en el Territorio Histórico de Bizkaia.

Además, las personas habrán de estar en posesión de un dictamen favorable emitido por la correspondiente Comisión Técnica de Valoración y Orientación socio-sanitaria definida en la estipulación cuarta de este convenio, para cada uno de los siguientes recursos:

- Unidades residenciales socio-sanitarias (en adelante URSS).
- Unidades residenciales, viviendas con apoyos y centros de día para personas con enfermedad mental grave y crónica.

Dicho dictamen no será necesario en los centros a los que resulta de aplicación lo previsto en la Disposición Adicional Única del Decreto foral de la Diputación foral de Bizkaia 24 /2020, de 31 de marzo, por el que se regula el acceso a centros residenciales y centros de día para personas con enfermedad mental.

### Tercera. – Obligaciones de las partes.

a) Obligaciones y responsabilidades del Departamento de Salud del Gobierno Vasco.

1.- Corresponderá al Departamento de Salud del Gobierno Vasco la obligación de abonar la cantidad estipulada en la cláusula quinta, en el modo en ella establecido.



2.- Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak osasun-sistema publiko osorako ezarritako jarduera klinikoaren gidak eta protokoloak jarriko ditu Bizkaiko Foru Aldundiaren eskura, zentroetan egiten den osasun arloko laguntza-prestazioan aplikatu dituztenak.

3.- Osasun Sailak erreferentziako pertsonak izendatuko ditu laguntza-mailetan, osasun-sistemaren eta gizarte-zerbitzuen sistemaren arteko koordinazioan eta lankidetzan aurrera egiteko.

4.- Hitzarmenaren aplikazio-eremuan sartzen diren egoitzetako gizarte-zentroetan emandakoaz kanpoko osasun-laguntza arrunta emateko, egoiliarren osasun-zainketa (medikuak eta erizainak) premiei erantzuneko die Osakidetza - Euskal Osasun Zerbitzuak, beren prestazio guztien barruan. Horretarako, egoitza-zentro bakoitzeko erabiltzaileen osasun-txartel individual guztiak (OTI) kupo batean sartuko dira, Lehen Mailako Arretako dagokion taldearen ardurapean (medikua/erizaina), baldin eta antolamenduaren aldetik posible bada eta interesdunek aurka egiten ez badute aukeratzeko askatasun-eskubidea erabiliz.

b) Bizkaiko Foru Aldundiaren betebeharrak eta erantzukizunak.

1.- Bizkaiko Foru Aldundiak hartzaileen eskura jarriko du lehen xedapenean deskribatutako baliabideetako plaza-kopurua; hitzarmen honen II. eranskinean adierazten dira.

2.- Bizkaiko Foru Aldundiari baliabide horiek kudeatzea eta antolatzea dagokio, baita erakunde laguntzaileekin kudeatzea ere.

2.- El Departamento de Salud del Gobierno Vasco pondrá a disposición de la Diputación Foral de Bizkaia, a efectos de su aplicación en la prestación asistencial de carácter sanitario que se realice en los centros, las guías de práctica clínica y protocolos establecidos por el Departamento de Salud del Gobierno Vasco para el conjunto del sistema sanitario público.

3.- El Departamento de Salud designará a las personas de referencia en los niveles asistenciales para avanzar en la coordinación y colaboración entre el sistema sanitario y el de servicios sociales.

4.- A fin de prestar la asistencia sanitaria ordinaria, ajena a la prestada en los centros sociales residenciales incluidos en el ámbito de aplicación del convenio, Osakidetza - Servicio Vasco de Salud atenderá las necesidades de cuidados sanitarios (médicos y de enfermería) de las personas residentes dentro del conjunto de sus prestaciones. Para ello se incluirán en un cupo y bajo la responsabilidad del equipo correspondiente de Atención Primaria (médico o médica- enfermero o enfermera) la totalidad de las tarjetas individuales sanitarias (TIS) de las personas usuarias de cada centro residencial, siempre que organizativamente sea posible y las personas interesadas no manifiesten su oposición haciendo uso de su derecho de libertad de elección.

b) Obligaciones y responsabilidades de la Diputación Foral de Bizkaia.

1.- La Diputación Foral de Bizkaia pondrá a disposición de las personas destinatarias el número de plazas en los recursos descritos en la estipulación primera que se indican en el Anexo II al presente convenio.

2.- A la Diputación Foral de Bizkaia le corresponde la gestión y organización de estos recursos, así como la relación con las entidades colaboradoras en la gestión de estos.



3.- Bizkaiko Foru Aldundiak, legez ezarritako prozedura izapidetu aurretik, plaza esleitzeko eta prezio publikoa emateko ebazpena/foru agindua emango du, dagokion foru dekretu arautzailean ezarritako baldintzen arabera.

4.- Bizkaiko Foru Aldundiak jarduerari buruzko urteko memoria bat aurkeztu beharko du. Memoria horretan, honako hauek jasoko dira: hitzarmenean aurreikusitako betebeharrak betetzen direla egiaztatze behar besteko informazioa; plazen kopurua, okupazioa eta erabilgarritasuna; plazen okupazioaren txandakatzeari, batez besteko egonaldiari, unitate bakoitzean sartzeko batez besteko itxaronaldiari eta abarri buruzko informazioa, eta, horrez gain, hura gauzatzearen ondoriozko gastuen eta diru-sarreraren xehetasunak.

5.- Edonola ere, zentroetan egiten den osasun arloko laguntza-prestazioak Eusko Jaurlaritzako Osasun Sistemak osasun-sistema publiko osorako ezarritako praktika klinikoaren gida eta protokoloek jarraituko die.

6.- Bizkaiko Foru Aldundiak zerbitzua ikuskatu, kontrolatu, jarraipena egin eta etengabe ebaluatuko du, haren kalitatea bermatzeko, bai eta aurreikusitako helburuak lortzeko ere.

7.- Osasun-laguntza ematen duten gizarte-zerbitzuen zentroek dagokien osasun baimena izango dute, abian jartzeko eta ibiltzeko.

c) Laguntzeko betebeharra.

1.- Bizkaiko Foru Aldundiak eta Osasun Sailak bi sareetako profesionalen arteko lankidetzaren eraginkorra eta koordinazio egokia susta dadin lan egingo dute, osasun-esparruan hitzarmenaren aplikazio-eremuan barne

3.- La Diputación Foral de Bizkaia, previa instrucción del procedimiento legalmente establecido dictará resolución/orden foral de asignación de plaza y de precio público en los términos previstos en el correspondiente decreto foral regulador.

4.- La Diputación Foral de Bizkaia deberá presentar una memoria anual de actividad que deberá contener información suficiente que permita verificar el cumplimiento de las obligaciones previstas en el convenio en relación con el número de plazas, su ocupación y disponibilidad, información sobre rotación en la ocupación de plazas, el tiempo medio de estancia, el tiempo medio de espera para ingreso en cada unidad, etc., además de incluir detalles de los gastos e ingresos derivados de su ejecución.

5.- En cualquier caso, la prestación asistencial de carácter sanitario que se realice en los centros seguirá las guías de práctica clínica y protocolos establecidos por el Departamento de Salud del Gobierno Vasco para el conjunto del sistema sanitario público.

6.- La Diputación Foral de Bizkaia ejercerá la labor de inspección, control, seguimiento y evaluación permanente de la prestación del servicio a fin de garantizar la calidad del mismo, así como el logro de los resultados previstos.

7.- Los centros de servicios sociales que presten asistencia sanitaria contarán con la autorización sanitaria de instalación y funcionamiento que, en su caso, corresponda.

c) Deber de colaboración.

1- La Diputación Foral de Bizkaia y el Departamento de Salud velarán para que se promueva una adecuada coordinación y efectiva cooperación entre los y las profesionales de ambas redes en los programas y actuaciones de especial interés que en el



hartzen diren erabiltzaileentzat ezartzen diren interes bereziko programa eta jardueretan.

2.- Arreta medikoa eta/edo erizaintzako zainketak egoitza-zentroetako langileek ematen badituzte, eguneroko laguntza-jardueraren erregistroa sustatuko da Osabide Integra aplikazioan, zentroetako langileen eta Osakidetza laguntza-sarearen arteko lankidetzak eta laguntza-koordinazioa errazteko.

#### Laugarrena. – Bizkaiko Lurralde Historikoko Balorazio eta Orientazio Soziosanitarioko Batzorde Teknikoa.

Bigarren xedapenaren bigarren paragrafoan adierazitako zerbitzuen ondorioetarako, Bizkaiko Lurralde Historikoko Balorazio eta Orientazio Soziosanitarioko Batzorde Teknikoaren esparruan jardungo dute Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailak eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak elkarlanean eta koordinatuta, kudeaketa tekniko-asistentzialerako eta funtzionamendua kudeatzeko (plazetarako sarbidea, plazen esleipena, diru-sarrerak, itxarote-zerrendak eta beste alderdi batzuk); gainera, unitate bakoitzean sartzeko kasuen balorazioa egin, eta unitate horietan sartutako pertsonen egoeraren jarraipena egingo dute, horretarako ezarritako araudia bete dadin sustatzeko.

#### Bosgarrena. – Finantza-lankidetzak.

1.- 2025 eta 2026ko ekitaldietan, Osasun Sailak hitzarmen honen III. eranskinean adierazitako zenbatekoak bideratuko ditu hitzarmen honen xedea garatzeko.

ámbito sanitario se establezcan para las personas usuarias incluidas en el ámbito de aplicación del convenio.

2- En caso de que la atención médica y/o los cuidados de enfermería sean proporcionados por personal propio de los centros residenciales, se promoverá el registro de la actividad asistencial diaria en la aplicación de Osabide Integra, de modo que se facilite la colaboración y la coordinación asistencial del personal de los centros con la red asistencial de Osakidetza.

#### Cuarta. – Comisión Técnica de Valoración y Orientación sociosanitaria del Territorio Histórico de Bizkaia.

A los efectos de los servicios indicados en el párrafo segundo de la estipulación segunda, será en el marco de la Comisión Técnica de Valoración y Orientación sociosanitaria del Territorio Histórico de Bizkaia donde el Departamento de Acción social de la Diputación Foral de Bizkaia y el Departamento de Salud de Gobierno Vasco, colaborarán y se coordinarán para la gestión técnico-asistencial y de funcionamiento (acceso a plazas, asignación de plazas, ingresos, listas de espera y otros aspectos); y realizarán la valoración de casos para el acceso a cada unidad; y el seguimiento de la situación de las personas ingresadas en dichas unidades, a fin de promover el cumplimiento de la normativa establecida a tal fin.

#### Quinta. – Colaboración Financiera.

1-Durante los ejercicios 2025 y 2026, el Departamento de Salud destinará para el desarrollo del objeto del presente convenio los importes que se indican en el **Anexo III**



2.- Urteko ekitaldi bakoitzerako, ordainketa zatika egingo da honako moduan:

- Urteko ekitaldi bakoitzari dagokion zenbatekoaren **%90** urte naturalean zehar **hileko ordainketa berdinetan** ordainduko da, **hil bakoitzeko lehen 15 egunetan**.
- **Gainerako %10a** garatutako jardueren **justifikazio-memoria aurkeztu ondoren** ordainduko da; memoria hori hurrengo **urteko lehenengo bi hilabeteetan** bidali beharko da.

3.- Justifikazio-memoriak ekitaldian egindako jardueren betetze-maila adierazi beharko du, eta Osasun Saileko Arreta Soziosanitarioko Zuzendaritzara bidaliko da. Sail eskudunek diru-sarrerak likidatzeko foru-aginduak eman ondoren egingo da ordainketa.

4.- Osasun Sailak urteko behin betiko likidazioaren emaitza hurrengo ekitaldiko lehen seihilekoan jakinaraziko dio Bizkaiko Foru Aldundiari.

#### Seigarrena. – Jarraipen batzorde mistoa.

Batzorde misto bat sortuko da, paritarioa, lankidetzaz hitzarmen hau garatzeko orduan koordinazio egokia edukitzeaz eta hura gauzatzen dela kontrolatzeaz arduratuko dena.

Batzorde hori sei pertsonaz osatuta egongo da. Horietatik, hiru, alderdi bakoitzak izendatuko ditu.

2- Para cada anualidad, el abono se realizará de forma fraccionada del siguiente modo:

- El **90%** del importe correspondiente a cada ejercicio se abonará en **12 mensualidades iguales** durante el año natural, dentro de los **15 primeros días** de cada mes.
- El **10% restante** se abonará **tras la presentación de la memoria justificativa** de las actividades desarrolladas, que deberá ser remitida **durante los primeros dos meses del ejercicio siguiente**.

3- La memoria justificativa deberá indicar el grado de cumplimiento de las actividades desarrolladas en el ejercicio, y será remitida a la Dirección de Atención Sociosanitaria del Departamento de Salud. El abono se realizará una vez emitidas las correspondientes órdenes forales de liquidación de ingresos por parte de los Departamentos competentes.

4- El Departamento de Salud comunicará a la Diputación Foral de Bizkaia el resultado de la liquidación anual definitiva en el primer semestre del ejercicio siguiente.

#### Sexta. – Comisión Mixta de seguimiento.

Se crea una Comisión Mixta, de composición paritaria, que será la responsable de procurar la adecuada coordinación en el desarrollo de este convenio de colaboración y de controlar su ejecución.

Esta comisión estará constituida por seis personas, tres nombradas por cada una de las partes.





Bizkaiko Foru Aldundiaren aldetik, gizarte-zerbitzuen arloan eskumena duen saileko titularrak egingo ditu izendatzeak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren aldetik, osasun arloan eskumena duen saileko titularrak egingo ditu izendatzeak.

Kideek egoki baderitzote, hitzarmenean barne hartzen diren gizarte edo osasun zerbitzuetako edo beste erakunde batzuetako ordezkariak sartu ahalko dira, kontsulta-eginkizunetarako. Beraz, hitza izango dute, baina botorik ez.

Batzordea urtean behin bilduko da ohiko izaerarekin, eta, gainera, ezohiko bilerak egin ahal izango dira, alderdietako edozeinek eskatuta. Hitzarmen honetan jasota ez dagoenerako, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legeari eta Euskal Sektore Publikoaren maiatzaren 12ko 3/2022 Legeari jarraituko die.

Alderdiak ados jarrita hartuko dira batzordearen erabakiak.

Hauexek izango dira batzordearen eginkizun orokorrak:

- a) Hitzarmena interpretatzea eta hura betetzen dela zaintzea, eta egin litezkeen ez-betetzeen mailakatzea zehazteko irizpideak ezartzea.
- b) Bere funtzionamenduaren jarraipena eta ebaluazioa egitea, eta egokitzat jotzen dituen aldaketa-proposamenak egitea.
- c) Baliabideen okupazio-indizearen eta baliabide-tipologia bakoitzari dagokion itzarote-zerrendaren jarraipena eta ebaluazioa egitea, Bizkaiko Foru Aldundiak urteko memorian emandako datuekin.

Por parte de la Diputación Foral de Bizkaia los nombramientos corresponderán a la persona titular del Departamento competente en materia de Servicios Sociales.

Por parte de la Administración General del País Vasco los nombramientos corresponderán a la persona titular del Departamento competente en materia de Salud.

Podrán incorporarse, siempre que se estime oportuno por sus miembros, representantes de los servicios sociales o sanitarios incluidos en el convenio o de otras entidades para funciones de consultoría y por tanto con voz y sin voto.

La Comisión se reunirá una vez al año con carácter ordinario, pudiéndose reunirse, además, con carácter extraordinario, a petición de cualquiera de las partes. Su funcionamiento, en lo no previsto en el presente Convenio, se regirá por la Ley 40/2015 de Régimen Jurídico del Sector Público y por la Ley 3/2022, de 12 de mayo, del Sector Público Vasco.

Las decisiones de la Comisión se tomarán por consenso entre las partes.

Las funciones generales de la Comisión serán:

- a) Interpretar y vigilar el cumplimiento del convenio, así como establecer los criterios para determinar la graduación de los posibles incumplimientos.
- b) Realizar el seguimiento y evaluación de su funcionamiento y formular las propuestas de modificación que consideren oportunas.
- c) Realizar el seguimiento y evaluación del índice de ocupación de los recursos, así como de la lista de espera correspondiente a cada tipología de recurso con los datos aportados por la Diputación Foral de Bizkaia en la memoria anual.



d) Plaza kopurua egokitzeko proposamenak egitea eta, hala badagokio, urteko zenbateko ekonomikoa eguneratzea.

e) Behin betiko likidazioa eta urteko jardueraren memoria onartzea; horretarako, kontuan hartuko da ekitaldi bakoitzean II. eranskinean zerrendatutako plazak benetan erabilgarri dauden.

### Zazpigarrena. – Ez-betetzea.

Alderdietako batek hitzarmen honetan jasotako aginduren bat betetzen ez badu, beste alderdiari jakinaraziko dio, modu frogagarrian, eta batzorde mistoari helaraziko dio hori. Ez-betetze hori alderdietako bati egotz dakioken ala ez erabakiko du batzordeak, eta, hala bada, seigarren klausulan aurreikusitakoaren arabera hartu beharreko erabakiak hartuko dira. Egoera bideratzeko aukera emango duen irtenbide bat adostea izango da helburua. Akordio hori ezinezkoa bada, hitzarmena suntsiarazi ahal izango da.

Ez-betetzea Bizkaiko Foru Aldundiari egotzi ahal bazaio, ez-betetzea gertatzen den ekitaldiari dagozkion zenbateko guztiak edo zati bat itzuli beharko ditu 30 eguneko epean, eta, hala badagokio, kobratzeke dauden zenbatekoak kobratzeko eskubidea galduko du. Itzulketa partzial bat zehaztu ahal izateko, beharrezkoa da betetze-maila modu esanguratsuan hurbiltzea erabat betetzera, eta Bizkaiko Foru Aldundiak argi eta garbi egiaztatu beharko du bere konpromisoak betetzera bideratutako jarduera izan duela.

d) Formular propuestas para la adecuación del número de plazas y, en su caso, la correspondiente actualización del importe económico anual.

e) Aprobar la liquidación definitiva y la memoria de actividad anual, para lo que se tendrá en cuenta la disponibilidad real en cada ejercicio de las plazas relacionadas en el Anexo II.

### Séptima. – Incumplimiento.

El incumplimiento por alguna de las partes de cualquiera de las prescripciones contenidas en este convenio se comunicará por aquella que lo invoque a la otra de manera fehaciente, lo que se elevará a la Comisión mixta para que determine si ese incumplimiento es imputable a alguna de las partes y, de ser así, adopte las decisiones oportunas de acuerdo con lo previsto en la cláusula sexta. Se tratará de acordar mediante consenso una solución que permita reconducir la situación. En caso de que dicho acuerdo no fuera posible, se podrá producir la resolución del convenio.

Si el incumplimiento fuera imputable a la Diputación Foral de Bizkaia, deberá reintegrar las cantidades percibidas en todo o en parte correspondientes al ejercicio en el que se produzca el incumplimiento en el plazo de 30 días y, en su caso, pudiéndose perder el derecho al cobro de las cantidades pendientes de percibir. Para que pueda determinarse un reintegro parcial es necesario que el cumplimiento se aproxime de modo significativo al cumplimiento total, y que la Diputación Foral de Bizkaia acredite una actuación inequívocamente tendente a la satisfacción de sus compromisos.



#### Zortzigarrena. – Hitzarmena aldatzea.

Sinatzen duten alderdiek hitzarmen honen baldintzak alda ditzakete edozein unetan, ados badaude, eranskin bat sinatuz.

#### Bederatzigarrena. – Indarraldia eta luzapena.

Hitzarmen hau bi alderdiek sinatu ondoren jarriko da indarrean, 2026ko abenduaren 31ra arte.

Hitzarmena berariaz luzatu ahal izango da 2028ko abenduaren 31ra arte, bi aldeak ados badaude, eta ezingo da gainditu Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legean eta Euskal Sektore Publikoaren maiatzaren 12ko 3/2022 Legean aurreikusitako iraupena.

#### Hamargarrena. – Azkentzeko arrazoiak.

Hitzarmen honen iraungitzea, ebazpena, ondorioak eta han berariaz arautzen ez den guztian, sektore publikoaren araubide juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen Atariko tituluko IV. kapituluan Euskal Sektore Publikoaren maiatzaren 12ko 3/2022 Legean ezarritakoa aplikatuko da.

#### Hamaikagarrena. – Datuen babesa

Hitzarmen hau betetzearen ondorioz ikusten diren informazioa eta datu pertsonalak pertsona fisikoen babesari buruzko 2016ko apirilaren 27ko Kontseiluaren eta Europako Parlamentuaren 2016/679 Arautegian ezarritakoak babestuko ditu, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari (DPBAO) dagokienez, datu pertsonalen babesari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan, eta aplikatzekoak diren eskubide digitalen eta gainerako arautegiaren berme gisa. Tratutzen diren datu pertsonalak

#### Octava. – Modificación del convenio.

Las partes firmantes podrán modificar los términos del presente convenio en cualquier momento, de mutuo acuerdo, mediante la firma de una adenda al mismo.

#### Novena. – Vigencia y prórroga.

El presente convenio entrará en vigor tras la firma por ambas partes y tendrá vigencia hasta el 31 de diciembre de 2026.

El convenio podrá ser prorrogado expresamente hasta el 31 de diciembre de 2028 por mutuo acuerdo de las partes, sin que pueda superarse la duración prevista por la Ley 40/2015, de Régimen Jurídico del Sector Público y por la Ley 3/2022, de 12 de mayo, del Sector Público Vasco

#### Décima. – Causas de extinción.

La extinción del presente convenio, su resolución y efectos, así como en todo lo no regulado expresamente en el mismo será de aplicación lo dispuesto en el Capítulo VI del Título Preliminar la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de régimen jurídico del sector público y de la Ley 3/2022, de 12 de mayo, del Sector Público Vasco.

#### Undécima. – Protección de datos.

La información y datos de carácter personal a los que se pueda tener acceso como consecuencia del cumplimiento del presente convenio se encuentran amparados por lo previsto en el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo de 27 de abril de 2016 relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos (RGPD), en Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de





hitzarmen honen xederako bakarrik erabiliko ditu, eta ez ditu inola ere erabiliko bereak diren beste helburu batzuetarako.

los derechos digitales y demás normativa que resulte de aplicación. Especialmente se obliga a utilizar los datos personales objeto de tratamiento solo para la finalidad objeto de este convenio y en ningún caso podrá utilizar los datos con fines propios.

Eta aurretik azaldutako guztiarekin ados egonda, hitzarmen honen bi kopia sinatzen dituzte, goian adierazitako tokian eta egunean.

Y en prueba de conformidad con todo lo anteriormente expuesto, firman el presente Convenio, por duplicado ejemplar, en el lugar y fecha arriba indicados.

**Elixabete Etxanobe Landajuela**

Diputada General de Bizkaia

Bizkaiko Ahalduen Nagusia

**Alberto Martínez Ruiz**

Consejero de Salud del Gobierno Vasco

Eusko Jaurlaritzako Osasun sailburua



## I. ERANSKINA. ZERBITZUEN

### ZEHAZTAPENAK

#### 1. EGOITZA-UNITATE SOZIOSANITARIOAK

##### Definizioa:

Egoitza-unitate soziosanitarioak aldi baterako laguntza-baliabideak dira, konplexutasun txikiko eta intentsitate handiko zainketa sanitarioak behar dituzten pertsonen beharrezko prestazioak emateko diseinatuak, baldin eta haien egoera soziofamiliarra dela-eta ezin badituzte adinekoren etxean edo egoitza batean behar bezala aplikatu eta gainbegiratu zainketa horiek, eta, edozein baldintza edo titulu juridikoren pean, Bizkaiko Foru Aldundiaren mende badaude, EAeko Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen Zerbitzu eta Prestazioen Katalogoaren esparruan.

Gizarte-zerbitzu horiek Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko urriaren 5eko 185/2015 Dekretuaren barruan garatuko dira, eta foru-aldundiei eskumen osagarriak eta osasun-eskumenak emango zaizkie gizarte-zerbitzuak emateko.

Trantsizio-baliabide gisa, egoitza-unitate soziosanitarioek aldi baterako bizilekua emango diete (berariazko baimenik ezean eta salbuespeneko kasuetan) gizarte- eta osasun-premiak aldi berean dituzten pertsonen.

Egoitza-unitate soziosanitarioen helburuak honako hauek dira: gaitasun funtzionalen hobekuntza sustatzea; bizitzaren azken fasean dauden pertsonen bizi-kalitatea ahal den neurrian erraztea; ospitaleratutako pazienteei arreta ematea, baldin eta, alta klinikoko egoeran egon arren, arreta ezin bada gauzatu hainbat motatako arrazoi soziosanitarioengatik, eta

## ANEXO I

### ESPECIFICACIONES DE LOS SERVICIOS

#### 1. UNIDADES RESIDENCIALES SOCIOSANITARIAS

##### Definición:

Las unidades residenciales socio-sanitarias, son un recurso asistencial de carácter temporal diseñado para proporcionar las prestaciones necesarias a personas que presentan necesidades de cuidados sanitarios de baja complejidad y alta intensidad, pero cuya situación socio-familiar no permite asegurar una adecuada aplicación y supervisión en el domicilio o en una residencia de personas mayores, y que bajo cualquier condición o título jurídico dependan de la Diputación Foral de Bizkaia, dentro del marco del Catálogo de Servicios y Prestaciones de la Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales de Euskadi, en su artículo 22.

Estos servicios sociales serán desarrollados dentro del marco del Decreto 185/2015, de 5 de octubre, de Cartera de Prestaciones y Servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales, atribuyendo a las Diputaciones Forales competencias para la prestación de servicios sociales, complementarias y de salud.

Como recurso de transición, las unidades residenciales socio-sanitarias proporcionarán residencia temporal (salvo autorización expresa y en casos excepcionales) a personas que presentan de forma simultánea necesidades sociales y sanitarias.

Los objetivos de las unidades residenciales socio-sanitarias son promover la mejora de las capacidades funcionales; favorecer en lo posible la calidad de vida de personas en fase final de la vida; proporcionar atención a pacientes ingresados que pese a encontrarse en situación de alta clínica, la misma no puede llevarse a cabo por motivos socio-sanitarios de



arreta soziosanitario bizia ematea etxean edo adinekoren egoitzetan mantentzea zaila den egoeran dauden pertsonen, arreta soziosanitarioko beharrak dituztelako, baina ezin badira ospitaleratu.

diversa índole; y proveer de atención sociosanitaria intensa a personas en situación de difícil mantenimiento en el domicilio o en las residencias de personas mayores por confluir en ellos necesidades de atención sociosanitaria que, sin embargo, no son susceptibles de hospitalización.

## 2. GAIXOTASUN MENTAL LARRIA ETA KRONIFIKATUA DUTEN PERTSONENTZAKO EGOITZA-UNITATEAK, LAGUNTZAK DITUZTEN ETXEBIZITZAK ETA EGUNEKO ZENTROAK.

## 2. UNIDADES RESIDENCIALES, VIVIENDAS CON APOYOS Y CENTROS DE DÍA PARA PERSONAS CON ENFERMEDAD MENTAL GRAVE Y CRONIFICADA.

### Definizioa:

- Eguneko arreta-zentroak dira, gizarteratzeko zerbitzu bat eskaintzen dutenak. Zerbitzu horrek hainbat eginkizun betetzen ditu eta arreta denbora luzean eskaintzen du. Helburua da erabiltzaileek ez galtzea ingurunearekiko lotura, eta akonpainamendu individualizatu bat eskaintzen zaie gizarteratze-ibilbidean, ikuspegi integral batetik uztartuz esku-hartze okupazionalak, hezkuntzakoak, terapeutikoak eta laneratzeko eta gizarteratzeko esku-hartzeak.
- Laguntza duten etxebizitzak, egonaldi luzeak egitekoak, gabezia psikosozialak eta buruko gaixotasun mental larriak eta kronikoak dituzten pertsonen testuinguru komunitarioan bizitzeko aukera emateko, intentsitate ertaineko heziketa laguntza eta laguntza psikosozialarekin.
- Laguntzak dituzten etxebizitzak. Halakoetan arreta ematen zaien pertsonen ez dute behar etengabeko gainbegiratzerik; inklusio-prozesu batean daude, eta, gizarteratze eta lan-inklusiara eta bizimodu normalizatura itzultzera bideratutako ibilbide pertsonalizatu baten esparruan, zerbitzutik kanpoko prestakuntzako eta garapen pertsonaleko jardueretan parte hartzen dute, egunean zehar.

### Definición:

- Centros de atención diurna que ofrecen un servicio orientado a la incorporación social, de carácter polivalente, que presta una atención prolongada en el tiempo, procurando que las personas usuarias no se desliguen de su entorno habitual, y ofreciéndoles un acompañamiento individualizado en el itinerario de incorporación, conjugando, desde un enfoque integral, intervenciones de carácter ocupacional, educativas, terapéuticas y de inclusión socio-laboral.
- Viviendas con apoyo de larga estancia, dirigidas a posibilitar la vida en el contexto comunitario de las personas que presentan carencias psicosociales y enfermedad mental grave y crónica, con un apoyo educativo y psicosocial de intensidad media.
- Viviendas con apoyos que atienden a personas que no requieren supervisión continua, que se encuentran en proceso de inclusión y que, en el marco de su itinerario personalizado orientado a su inclusión, social y laboral, y a su vuelta a una vida normalizada, participan, durante el día, en actividades formativas y de desarrollo personal que se ofrecen fuera del servicio.



- Egonaldi ertainerako egoitza-zentroak, errehabilitazio psikosozialerako, nahasmendu mental larria dutenentzat, tratamendu psikiatrikoan daudenentzat, drogaletasunak dituztenentzat, errehabilitazio psikosozialaren aldeko pronostikoa duen desgaitasun iraunkorra dutenentzat eta gizarte-euskarri egokirik ez dutenentzat.
- Egonaldi luzerako egoitza-zentroak, egoera kronifikatuan dauden eta gaixotasun mental larria eta kronikoa duten pertsonentzat. Egonaldi luzeko zerbitzua eskaintzen zaie, gizarte-inklusioa eta esku-hartze geldoko erritmoa uztartzen dituen ikuspegia duena.
- Egoitza-zentroak, eguneroko bizitzako jarduerak egiteko etengabeko gainbegiraketa edo laguntza behar duten pertsonen arreta eskaintzen dietenak. Zaintzaileak dituzte uneoro.
- Centros residenciales de media estancia destinados a la rehabilitación psicosocial en caso de trastorno mental grave, en tratamiento psiquiátrico, con drogodependencia, discapacidad persistente con pronóstico favorable de rehabilitación psicosocial y carencia de soporte social adecuado.
- Centros residenciales de larga estancia, para personas en situación crónica y enfermedad mental grave y crónica, a las que se ofrece un servicio de larga estancia con un enfoque que combine una visión de inclusión social, con un ritmo de intervención pausado.
- Centros residenciales, que atienden a personas que requieren supervisión continua y/o ayuda para realizar actividades de la vida diaria, contando con personal de apoyo de forma permanente.

### 3. MENDEKOTASUNA DUTEN PERTSONENTZAKO ETA DESGAITASUNA DUTEN PERTSONENTZAKO EGOITZA-ZENTROAK.

#### Definizioa:

Mendekotasuna duten pertsonentzako eta desgaitasuna duten pertsonentzako egoitza-zentroak laguntza-baliabideak dira. Mendekotasun-egoeran dauden adinekoentzako -II. eta III. graduetan eta, salbuespen gisa, I. graduan- eta desgaitasuna duten pertsonentzako etxebizitza ohiko edo iraunkor gisa erabiltzeko xedea dute, baldin eta beren beharrian sozialak eta sanitarioak behar bezala ase ezin badituzte beren ohiko ingurunean -bizileku pertsonala edo familiarra-, zaintzaren intentsitate handia eta

### 3. CENTROS RESIDENCIALES PARA PERSONAS CON DEPENDENCIA Y PARA PERSONAS CON DISCAPACIDAD.

#### Definición:

Los centros residenciales para personas con dependencia y para personas con discapacidad son recursos asistenciales destinados a servir de vivienda, habitual o permanente a personas mayores en situación de dependencia -en Grados II y III, y excepcionalmente en grado I- y personas con discapacidad que no pueden satisfacer adecuadamente sus necesidades sociales y sanitarias de forma simultánea en su entorno habitual -domicilio personal o familiar- por requerir una alta intensidad de cuidados y



arreta integrala, jarraitua eta aldizkako laguntza-mailak behar dituztelako.

una atención integral, continua y con niveles de apoyo intermitente.

Desgaitasuna duten pertsonentzako egoitza-zentroen barruan, bi mota bereizten dira:

Dentro de los centros residenciales para personas con discapacidad se diferencian dos tipos:

- Laguntzak dituzten etxebizitzak. Halakoetan arreta ematen zaien pertsonak ez dute behar etengabeko gainbegirakerik; inklusio-prozesu batean daude, eta, gizarte- eta lan-inklusiara eta bizimodu normalizatura itzultzerantz bideratutako ibilbide pertsonalizatu baten esparruan, zerbitzutik kanpoko prestakuntzako eta garapen pertsonaleko jardueretan parte hartzen dute, egunean zehar.

- Viviendas con apoyos: que atienden a personas que no requieren supervisión continua, que se encuentran en proceso de inclusión y que, en el marco de su itinerario personalizado orientado a su inclusión, social y laboral, y a su vuelta a una vida normalizada, participan, durante el día, en actividades formativas y de desarrollo personal que se ofrecen fuera del servicio.

- Egoitza-zentroak, eguneroko bizitzako jarduerak egiteko etengabeko gainbegiraketa edo laguntza behar duten pertsonen arreta eskaintzen dietenak. Zaintzaileak dituzte uneoro.

- Centros residenciales: que atienden a personas que requieren supervisión continua y/o ayuda para realizar actividades de la vida diaria, contando con personal de apoyo de forma permanente.

Nolanahi ere, hitzarmen hau Bizkaiko Foru Aldundiaren mende dauden zentroein buruzkoa da, zentro horien izaera edo erabilitako tresna juridikoa edozein dela ere, Euskadiko Gizarte Zerbitzuein buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen Zerbitzu eta Prestazioen Katalogoaren 22. artikulua esparruan.

En cualquier caso, este convenio se refiere a los centros que, independientemente de su condición o instrumento jurídico empleado, dependan de la Diputación Foral de Bizkaia, dentro del marco del Catálogo de Servicios y Prestaciones de la Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales de Euskadi, en su artículo 22.



II. ERANSKINA

ANEXO II

PLAZA KOPURUA:

Nº DE PLAZAS

ZERBITZUA/BALIABIDEA SERVICIO/RECURSO	2025	2026
EUS (1) / URSS (1)	186	186
GMLK (2) duten pertsonentzako eguneko zentroak Centros de día para personas con EMGC (2)	435	435
GMLK (2) duten pertsonentzako etxebizitzak, laguntzekin Viviendas con apoyos para personas con EMGC (2)	392	392
GMLK (2) duten pertsonentzako egoitza-unitateak Unidades residenciales para personas con EMGC (2)		
Mendekotasuna duten adineko pertsonentzako eta desgaitasuna duten pertsonentzako egoitzak / Residencias de personas mayores dependientes y personas con discapacidad	3.000	3.000

- (1) Egoitza unitate soziosanitarioa / Unidad Residencial Sociosanitaria  
(2) Gaixotasun mental larria eta kronifikatua / Enfermedad mental grave y cronicada



III. ERANSKINA

ANEXO III

FINANTZA-LANKIDETZA

COLABORACIÓN FINANCIERA

Ekitaldia / Ejercicio	Zenbateko osoa / Importe total	Ekitaldian zehar ordaintzeko (90%) / Pago durante el ejercicio (90%)	Justifikazioaren ondoren ordaintzeko (10%) / Pago tras justificación (10%)
2025	14.599.995 €	13.139.995,5 €	1.459.999,5 €
2026	14.599.995€	13.139.995,5 €	1.459.999,5 €

